



 **GARAPEN**  
JASANGARRIRAKO  
HELBURUAK




Ikas-egoerak

# Bihurtu dezagun biral bakea

**DBHko 1. eta 2. mailak**





**Bihurtu dezagun biral bakea** © SED GGKE 2026k garatutako hezkuntza-proposamena da. Material honek baimen hau du: Creative Commons CC BY-NC-ND 4.0

Egileak: Ana Martín Bautista, Cristian Gómez Martín, Florencia Agustina Bulacio Vaira, Izaskun Adot Larumbe eta Tania Días Basurdo, SED GGKEko HGHE batzordeko kideak, Ana Fernández Moya proiektuen koordinatzailearen eta Beatriz de la Banda Velázquez batzorde iraunkorreko kidearen laguntzarekin.

Berrikuspen teknikoa: Nuria Salvatierra Villada, Jesús Rojas Aguilar, Rocío Rodríguez Rueda, Esther Lechado Hurtado, Coral de la Camara García, Teresa Rodríguez Pérez de Ayala, Isabel de la Cruz Sierra, Agnola Soler Ortiz, Inmaculada LLacer Moreno Auriolés, M<sup>a</sup> del Carmen Millán Herrera, Sevillako Maristen ikastetxeko irakasle taldeko kideak.

Diseinuak: Zootropo Studio.

Maketazioa: Victoria Daima, SED GGKEko komunikazio-arduraduna.



## 1. IE: “Sareetan ikusten ez duzuna: gorroto digitala desmuntatuz”

### Testuingurua

16. GJHak (16. GJH: Bakea, justizia eta instituzio sendoak) gizarte baketsu, inklusibo eta seguruak sustatzen ditu, pertsona guztiek indarkeriarik, diskriminaziorik eta bazterketarik gabe bizitzeko modua izan dezaten. Helburua ez da mugatzen gatazka armatuetara edo indarkeria fisikora, ez; aitzitik, kontuan hartzen dira eguneroko hainbat indarkeria modu ere, eta horietako asko ingurune digitalean agertu ohi dira.

Gaur egun, gizarteratzeko oinarri-oinarrizko guneak dira sare sozialak haur eta nerabeentzat. Baina ingurune horiek ez dira neutroak. Oinarrizko dokumentuan jasotzen denari jarraiki, “intolerantziaren digitalizazioa” ari da gertatzen, non gorroto-diskurtsoak oso azkar zabaltzen diren, algoritmoen funtzionamenduari esker; izan ere, eduki emozionalak, polemikoak edo gatazkatsuak lehenesten dituzte. Horren eraginez, “bestea” baztertzen duten, deshumanizatzen duten edo iseka egiten duten mezuak gehiago ikusten dira, eta inpaktu handiagoa dute.

Testuinguru horretan, egiturazko indarkeria motak erreproduzitzen dituzten mezuak jasotzeko arriskua dute ikasleek; hauek, besteak beste:

- Beste kultura edo herrialde batzuetako pertsonetikiko arrazakeria eta xenofobia
- Matxismoa eta, horrekin, generoaren esparruko desorekak betikotzea
- Diskriminazio erlijiosoa edo kulturala
- Aniztasuna baztertzea (LGTBI, gorputz-aniztasuna, aniztasun soziala, etab.).

Diskurtso horiek, zuzenean horiekin lotuta dauden pertsonengan ez ezik, eragina dute ikasleek oro har errealtateaz duten pertzepzioan ere, bestea kanporatu edo baztertzeko jarrerak edo iseka egitekoak normalizatzen baitituzte. Gainera, dokumentu horretan adierazten denez, fenomeno digital horiek zuzenean eragiten diote eskolaren esparruari, eta, askotan, jazarpen-egoeren bidez, bestea bakartuz edo parekoen arteko gatazken bidez agertzen da gorrotoa.



16. GJHaren ikuspegitik, oinarrizko eskubideak urratzen direla erakusten du errealitate horrek:

- Duintasunerako eskubidea.
- Berdintasunerako eskubidea.
- Ingurune seguruetan bizitzeko eskubidea.
- Indarkeriarik gabeko hezkuntzarako eskubidea.

Aldi berean, 16. GJHak ere oinarri-oinarrizko gako bat planteatzen du: bakearen kultura bat eraikitzea, argi ulertuta bakea ez dela gatazkarik ez izatea, desberdintasunak errespetuan, enpatian eta justizia sozialean oinarrituta kudeatzeko gaitasuna baizik. Oinarrizko dokumentuan zehazten denaren arabera, giza harremanei datxekien zerbait da gatazka, baina indarkeria ez da saihestezina: eraldatu egin daiteke elkarrizketaren, komunikazioaren eta lankidetzaren bidez.

Ilido horretatik, hezkuntzako gune garrantzitsuenetariko bihurtzen da ingurune digitala: ikasleek, informazioa kontsumitzeaz gain, aktiboki parte hartzen dute, iruzkinen, erreakzioen eta edukien bidez. Interakzio digital bakoitza herritarrek parte hartzeko modu ba da, gorrotoa elika dezakeena edota, aldiz, bizikidetza eraikitzen lagundu dezakeena.

Ikasegoera honek, beraz, aukera bat eskaintzen die ikasleei:

- **Gorroto-diskurtsoen benetako eragina ulertzeko.**
- **Horien aurrean pentsamendu kritikoa garatzeko.**
- **Ingurune digitalean betetzen duten zeregin aktiboaz jabetzeko.**
- **Bakearen kulturaren logikatik erantzuten ikasteko.**

## Esparru teorikoa




## Oinarrizko kontzeptu batzuk


- Gorroto-diskurtsoa
- Ziberjazarpena
- Biralizazioa
- Algoritmoak
- Bakearen kultura
- Aniztasuna
- Giza eskubideak eta eskubide digitalak
- Herritartasun digitala.

## Saioa gidatzeko galderak

- Sareetan esaten den guztia iritzi bat baino ez da?
- Zer alde dago gatazkaren eta indarkeriaren artean?
- Nola eragiten diete gorroto-mezuek pertsonen?
- Zergatik zabaltzen dira horren azkar mezu horiek?
- Zer egin dezakegu guk horrelako egoeren aurrean?



## Helburuak




Ikasegoera honen bidez, ikasleek arazoa identifikatzea lortu nahi da, eta, horrez gain, arazo horren aurrean zerbait egiteko tresnak garatzea. Ikasleak gai izango dira horrela:

- Sare sozialetan gorroto-diskurtsoak identifikatzeko, hainbat bereizkeria modu ezagutuz.
- Ingurune digitalak halakoak hedatzea erraztu duela ulertzeko (biralizazioa, anonimotasuna, algoritmoak).
- Horrelako mezuek pertsonengan zer eragin emozional eta sozial dituzten ulertzeko.
- Eduki digitalen aurrean pentsamendu kritikoa garatzeko.
- Indarkeriarik gabeko komunikazio-estrategiak aplikatzeko.
- Bizikidetzarako oinarri gisa balioesteko aniztasuna.
- Rok aktibo bat hartzeko, bakearen kulturarako eragile gisa.

## Curriculumeko elementuak

### Oinarrizko konpetentziak:

- Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia
- Konpetentzia digitala
- Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa
- Herritartasunerako konpetentzia



### Oinarrizko jakintzak:

- Bizikidetza eta gatazkak ebaztea
- Berdintasuna eta aniztasuna
- Sare sozialen erabilera arduratsua
- Giza eskubideak

## 1. dinamika: “Zer dagoen mezuaren atzean”

### Deskribapen narratiboa

Lehen jarduera honetan, sare sozialetan dauden gorroto-diskurtsoen azterketa kritikoa egiten hasiko dira ikasleak. Euren errealitateak gertuko adibideetatik abiatuta, ikusarazi nahi zaie mezu horiek ez direla iritzi hutsa; indarkeria eragiteko moduak dira, eta benetako eragina dute pertsonengan eta bizikidetzan.

Jarduera honetan, pentsamendu kritikoa, enpatia eta aurreiritzi eta estereotipoak identifikatzeko gaitasuna gararazi nahi dira. Horrez gain, ingurune digitalaren ulermena lantzeko aukera ere ematen du, partaidetzazko gune den aldetik eta kontuan hartuta mezu bakoitzak ondorioak dituela.

Arreta handia jarriko da diskurtso horiek (emozioak, orokortzea, anonimotasuna) nola osatzen diren eta zergatik zabaltzen diren horren azkar aztertzeko, eta ideia honekin lotuko da: gatazka gauza naturala da, baina indarkeria ez.

### Beharrezkoak diren baliabideak

- Itxuraz sare sozialetakoak diren pantaila-irudiak (iruzkinak, memeak, egokitutako argitalpenak).
- Azterketarako fitxa gidatua.
- Arbela edo horma-irudia, bateratze-lanerako.

### Azalpena fasez fase

#### Hasiera

Gorrotoa edo bereizkeria adierazten duten zenbait mezu erakutsiko ditu irakasleak (ikasleen adinera egokituta). Galdera bat botako zaie, abiapuntu gisa balio dezakeena: “Iritzi hutsa da, edo min egin diezaioke norbaiti?”. Ideia-jasa bat egingo da tartetxo batez, hasieran zer ikuspegi duten jabetzeko, baina une horretan ez da epairik emango, ez zuzenketarik egingo.

#### Garapena

Talde txikiak osatuko dira ikasleen artean, eta mezu bat edo pare bat aztertuko dituzte, gogoetan lagunduko dieten fitxa egituratu bat erabiliz.

Gero, mezuan dauden estereotipoak edo aurreiritziak identifikatuko ditu talde bakoitzak, eta gogoeta egingo dute eskola- edo gizarte-inguruneke egoera errealekin duten zerikusiaz.

## Gorrito-mezuak

SHARE

*Erru guztia harena izan zen, horrela janzteagatik.*



*Alde gure herrialdetik, lekuz kanpo zaudete.*



*Nazkagarria haiz, begiratu ispiluan bestela.*



*Alfer hutsak dira, besteren kontura bizi direnak.*



*Meme bat egingo dizugu, eta a zer barreak egingo ditugun*



*Ez hitzik egin hari, zomorro hutsa da.*



*Etiketatu gustukoen duzun pertsona, zure ezagunen artean.*



*Ez hau inork maite hemen. Akabatuko ahal haiz.*



*Ez dago MENArik, adin nagusiko gizonak dira denak, ez emakume eta ez ume.*



*Jarduera honetan ageri diren mezuak fikziozkoak dira, eta hezteko xedez landu dira.*

## Azterketarako fitxa

**Zer dio mezuak?**

---

---

---

---

**Nori zuzentzen zaio?**

---

---

---

---

**Zer bereizkeria mota ageri da?**

---

---

---

---

**Ikusi duzu inoiz horrelako mezurik? Eman dezakezu adibiderik?**

---

---

---

**Zer emozio sortu ditzake hartzailearengan?**

---

---

---

---

**Zergatik idatzi ote du inork horrelakorik?**

---

---

---

---

**Zergatik zabaltzen dira horren azkar?**

---

---

---

---

## Itxiera

Egindako lana bateratuko da, eta atera dituzten ondorioak azalduko dituzte taldeek. Sintesia oinarritzko ideia hauetara bideratuko dute irakasleek:

- Sareko mezuek ondorio errealak dituzte.
- Guztia ez da “adierazpen-askatasuna”.
- Gorroto digitala indarkeria modu bat da.

Sarrera egingo zaio gorroto-diskurtso kontzeptuari, eta bizikidetzarekin eta 16. GJHarekin zer lotura duen aztertuko da.

## 2. dinamika: “Erantzun, eraldatzeko: bake-mezuak eraikitzea”



Bigarren jarduera honetan, azterketatik harago joango dira ikasleak, eta eragile aktibo bihurtuko dira gorroto digitalaren aurrean. Aurrez landutako mezu horietatik abiatuta, diskurtso horiek eraldatzea proposatzen da, errespetuan, enpatian eta indarkeriarik gabeko komunikazioan oinarritutako erantzunak emanez.

Helburua da ikasleek argi ulertzea, gorrotoa zabaltzea saihesteaz gain, pauso bat harago joan daitezkeela, ingurune digitalean modu eraikitzaile batean esku hartuz. Beste trebetasun batzuk lantzen dira, emozioen kudeaketa, komunikazio asertiboa eta sarean parte hartzeak dakarren ardura, esaterako.

Jarduera honen bidez, ideia hau indartu nahi da: bake-kulturak zerbait egitea ere eskatzen du, ez gogoeta egitea soilik, eta pertsona bakoitzak bere inguruan eragiteko gaitasuna du.

### Beharrezkoak diren baliabideak

- Aurreko jardueran aztertu diren mezuak
- Indarkeriarik gabeko komunikazioari buruzko txantiloi xume bat
- Bake-mezuak sortzeko kartoitxo meheak edo tresna digitalak
- Aukeran: itxiera gisa, bateratze-lanaz gain, taldearen argazki bat egitea proposatzen da, ikasleek sortutako kartelak edota materialak ere erabilita, edo bideo bat egitea, non talde bakoitzak bere bake-mezuak azalduko dituen. #Bihurtudezagunbiralbakea traola erabiltzea gomendatzen da, edota kanpainaren kartela erabiltzea.

Azalpena fasez fase

## Hasiera

Aurreko dinamikan aztertu diren mezueta batzuk hartuko dira berriro. Irakasleak honako galdera hau botako du: “Sareetan horrelako mezu bat ikusten baduzu, zer egin dezakezu?”

Eman ohi diren erantzunak jasoko dira (ez ikusiarena egin, gaizki erantzun, zabaldu, barre egin...), eta, hala, hainbat modutara erantzun daitekeela ikusiko dute. Gero, aukera gisa, bake-kulturaren ikuspegitik erantzuteko aukeraz hasiko dira hizketan.

## Garapena

Indarkeriarik gabeko komunikazioaren eredua azalduko zaie, labur-labur:

1. Gertatzen dena deskribatu (epaitu gabe).
2. Nola sentiarazi nauen azaldu.
3. Garrantzitsua zer den identifikatu (errespetua, berdintasuna...).
4. Alternatiba bat edo eskaera bat proposatu.

Ikasleek, taldeka, hasierako mezua aldatu egingo dute, beste zerbait bihurtzeko:

- a) Errespetuzko erantzun bat
- b) Mezu alternatibo positibo bat
- c) Aniztasuna sustatzen duen “kontrako mezu bat”

Hau ere egin daitezke, nahi izanez gero:


1. Rol-joko baten bidez egoera antzeztu.
2. Sareetarako mezutxo bat diseinatu, “Bihurtu dezagun biral bakea” traolaren bidez.

## Itxiera


Talde bakoitzak bere proposamena aurkeztuko die gainerakoei. Azken gogoeta egingo da, gidatuta:

- Erraza al da gorrotora jo gabe erantzutea?
- Zer eragin izan dezake horrelako erantzunek?
- Zer-nolako sareak eraiki nahi ditugu?

Idea hau indartuko dugu: ingurune digitalean, aldaketarako eragile izan daiteke gutako bakoitza.



**Indarkeriarik gabeko komunikazioaren ereduak**



**IREKI BEGIAK**

**Gorrito-diskurtso bati aurre egin behar diozunean, egin geldiune bat, eta pentsatu:**

Zer esan nahi du eduki honek? Informazioa da, edo iritzia? Mezu honek pertsona bati edo talde bati eraso egiten dio, estigmatizatu egiten du?



**BILATU ITURRI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN**

**Ez hartu kontuan ikuspegi bakarra, bilatu iturri gehiago:**

Nondik dator mezua? Informazio guztia daukat, edo edukia editatuta dago eta kontakizunaren zati bat baino ez dut ikusten? Badago beste iritzirik gai honetaz?



**ZABALDU BAKEA**

**Ez partekatu gorrotoa, egin biral bake-mezuak:**

Zer eduki dira nire intereseoak, munduaz ikuspegi kritiko eta positibo bat ematen didatenak? Zer mezu eraiki ditzaket besteen iritzia errespetatuz neurea emateko?

Ingurune digitalean eta mundu errealean parte hartzen dugunez, zer egin behar dugu gorrotozko mezu baten aurrean?

**1** Gertatzen ari dena deskribatu (epaitu gabe), eta nola sentiarazten nauen adierazi.

**2** Zer den garrantzitsua identifikatu: errespetua, berdintasuna, guztion eskubideak, ahotsen aniztasuna, elkarriketa.

**3** Errespetua, bakezko bizikidetzatza, gai baten inguruko ahotsen aniztasuna eta pertsona guztientzako ingurune seguru eta inklusiboak izatea sustatzen duten aukerak eta eskaerak proposatu.

## Itxiera: sintesi didaktikoa

Ingurune digitala beren eguneroko bizimoduaren parte dela ulertzen dute ikasleek, eta han duten parte-hartzeak zuzenean eragiten diola bizikidetzari. Mezuak aztertu eta eraldatu ondoren, ikasleek ikusten dute bake-kultura ez dela kontzeptu abstraktu bat, errespetuan, enpatian eta erantzukizunean oinarrituta jarduteko modu bat baizik.

## Ebaluazioa

Ebaluazioan, ezaguerak barneratu diren balioesteaz gain, gizarteko jarrera eta gaitasunen garapena ere ebaluatuko da. Benetako egoerak aztertzeko, modu kritikoan posizio jakin bat hartzeko eta bake-kulturan oinarritutako aukerak proposatzeko ikasleek duten gaitasunari erreparatuko zaio bereziki. Tresna eta irizpide hauek erabiliko dira horretarako:

## Tresnak

- Talde-lanaren behaketa
- Azterketarako fitxa
- Ikasleek ekoizpenak
- Parte-hartzea
- Autoebaluazioa.

## Ebaluazio-irizpideak

### Ikasleek:

- Gorroto-diskurtsoak identifikatzen dituzte.
- Mezuak kritikoki aztertzen dituzte.
- Mezuek zer eragin duten ulertzen dute.
- Indarkeriarik gabeko erantzunak proposatzen dituzte.
- Aktiboki parte hartzen dute.
- Aniztasuna errespetatzen dute.

## **Gelako emaitzak partekatu nahi dituzu?**

Bidaliezaguzu materiala (argazkia, bideoak, jardueraren laburpena) helbide honetara: [comunicacion@sedongd.org](mailto:comunicacion@sedongd.org).

*SED GGKEtik, gure kanaletan argitaratuko ditugu zuek bidalitako lanak, **bakea biral egiteko eta kanpainaren eragina ikusarazteko.***

## **Ebaluatu materiala!**

Bidaliezaguzu zure iruzkina **inprimaki** honen bidez.

*Kanpainaren eragina ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintzetarako hobetzeko aukerak identifikatzeko eta baloratzeko soilik tratatuko ditu datuak SED GGKEak.*

